

MOZIOA

3823/2016

ORG11I006

Código de validación/*Balidazio kodea*

0H155R68413U0N3H0GFP



ERMUKO UDALEKO TALDE SOZIALISTAK SUPERABITA BERRINBERTITZEAREN INGURUAN AURKEZTU DUEN MOZIOA

Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren inguruko Araudian ezarritakoari jarraituz, Ermuko Udaleko Talde Sozialistak Udalbatzarraren iritzipean jarri nahi du ondorengo mozioa

ZIOEN AZALPENA

Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko Lege Organikoak (LOEPSF) nahitaez bete beharreko hiru arau fiskalak jasotzen ditu: aurrekontu egonkortasuna, zor publikoa eta gastu-araua.

LOEPSF delako lege horren 11.4 artikulua jasotzen du “Toki-erakundeek aurrekontuek oreka- edo superabit-egoeran egon beharko dutela”, eta superabitaren xedea aipatzen duen 32 artikulua, berriz, “superabita, zorpetze garbia murriztera zuzenduko dela” dio.

Merkataritzaren Zorrari buruzko 9/2013 Legeak legea aldatu zuen udalei hainbat baldintza betetzen laguntzeko, superabit horiek finantza aldetik jasagarriak izan zitezkeen inbertsioak, zehazki otsailaren 21eko 2/2014 Dekretu-Legeak bere 16 xedapen gehigarrian definitutakoak, egin zituzten. Salbuespen horiek ez zizkieten udalen eskaerei inolaz ere erantzuten, zeren eta neurri horietara bildu ahal izateko baldintzak oso zorrotzak ziren: aurrekontu-superabita eta diruzaintza-gerakina edukitzea, berankortasunaren legea betetzeko hornitzaileekin zituzten zorrak jada ordainduta edukitzea, eta soberakina zorra amortitzatzeko erabiltzea.

Urte hauetan zehar egoera horrek kontraesana sortu du: udalak dira superabita duten administrazio bakarrak, ez daukate zorrik eta bete egiten dituzte beraien helburuak, baina hala ere ezin dute aurreztutako dirua inbertitu.

Une honetan toki-administrazioa da jarritako helburuak gehien betetzen dituen: aurten toki-mailako zorra 2020rako finkatutako %3ko helburura iritsi da, lau urteko aurrerapenarekin, eta toki-erakundeen superabitak BPIren puntu erdi gehitzen dio Espainiako kopuru osoari, gastu-muga betez eta hornitzaileei epean ordainduz gainera.

Horregatik, ezinbestekoa da Gobernuak udalen eskariei erantzutea eta, joan den azaroaren 30ean udal eta probintzien espainiar federazioak (FEMP) Toki Administrazioaren Batzorde Nazionalaren (CNAL) bileran planteatu zuen bezala, superabita, aurten 4.500 miloi eurokoa gutxi gorabehera, erabiltzen utz diezaiela.

Iritsi da ordua Gobernuak udalei entzuteko eta haien aldarrikapenekiko sentsibilizatzeko, udalen eskaerak justuak, arrazoizkoak eta beharrezkoak direlako hiritarren interesak beste edozeinenaren aurretik ipintzen jarraitzeko eta inbertsioak, garapena eta Ongizatearen Estatua sendotzen segitzeko.

Tokiko gobernuak hiritarrendik hurbilen dauden administrazioak dira, eta are gehiago krisialdi garai honetan, horregatik Gobernuak ez du kalitatezko zerbitzu publikoak emateko udalen eginkizuna oztopatzen jarraitu behar.

Horregatik guztiagatik Ermuko Udaleko Talde Sozialistak ondorengo mozioa aurkezten du Udalbatzarrak aztertu eta onar dezan.

MOZIOA

1. Ermuko Udaleko Udalbatzarrak Espainiako Gobernuari eskatzen dio toki erakundeei utz diezaiela beraien superabita 2017an berrinbertitzen, beste horrenbesteko diru-sarrera berriak sortzeko beharrik gabe, Estatuaren Aurrekontu Orokorren luzapenetik sortzen den berrinbertsio hori egiteko baimen legala emanaz.